

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Gure produktua merkatu segmentura iritsi ahal izateko komunikazio kanal desberdinak erabiliko ditugu:

- Komunikazio kanala → **Sare sozial** desberdinak erabiliko ditugu, gaur egun oso ezagunak direnak, hala nola: Instagram, Tik- Tok eta Facebook. Horrez gain, gure produktua etxe guztietara heltzeko, **denda online** jarriko dugu. Bertan gure bezeroek produktuaren erabilera egokia izateko produktuaren informazio osoa izateaz gain, nola erabiltzen den bideoak ezarriko ditugu gure bezeroei lagundu ahal izateko.
- Salmenta kanalak → Herriko festa ezberdinetan edo merkatu desberdinetan egongo gara, garrantzitsua delako adin guztietako jendeak ezagutzea gure produktua eta kontuan izan behar dugu adineko jendeak ez dituztela sare sozialak. Horrez gain, online saldutako produktuak etxeetara bidaliko ditugu.

Bost fasez osatuta daude:

Pertzepzioa: Bezeroak gure produktua ezagutzea(denda online edukitzea adibidez)

Erosketa: Bezeroak gure produktua erosi ala ez erabakitzen du.

Entrega: Produktua entregatzen da eta orduan iada bezeroak bere esku edukiko du produktua.

Salmenta ondorengoa: Bezeroari zerbitzu osagarria eskaintzen zaio eta horrekin zalantzak argituko dizkiete.